

2018ko MAIATZAK 22ko EZOHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hemezortziko maiatzak hogeitabi.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Xabier Aranburu Altuna.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Ion Mujika Perez.
Julen Zabala Garcia.
Jule Aranburu Mariezkurrena

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Eguerdiko ordubat tèrdiak.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko ordubiak.

1.- “Pirinioetako Burdinaren Bidea Elkartean sartzea, elkartearen Estatutuak onartzea eta ordezkaria izendatzea.

Kultura Batzordeak egin duen proposamenaren berri eman da, Udal hau Elkarte horretako kide izan dadin.

Elkarri iritziak eman ondoren, Udalbatzak honako akordio hau hartzen du aho batez:

Lehena: Pirinioetako Burdinaren Ibilbidea Elkartea eratzea honako erakunde hauekin batera: Communauté du Pays de Nay, Museu de la Ciència y de la Tècnica de Catalunya, Lenbur Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Beasaingo Udala, Ormaiztegiko Udala, Eibarko Udala, Zeraingo Udala, Departament de Patrimoni del Govern d’Andorra eta Andorrako Comú d’Ordino.

Bigarrena: Elkarte hori arautuko duten Estatutuen proposamena onartzea.

Hirugarrena: Iñaki Ugalde Alustiza jauna izendatzea Elkarte horretako Udal honen ordezkari.

2.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	10,01
2	OSTATU: EMANDAKO ZERBITZUAK	137,50
3	CORREOS. POSTA KUOTAK MARTXOA	9,63
4	MAQUELSA: FOTOKOPIAK	22,97
5	NORTEGAS: UDALETXEKO BEROGAILUA	427,49
6	NORTEGAS: HAURTZAINDEGIKO BEROGAILUA	359,75
7	CHIP,S: ORDENAGAILUEN MANTENIMENDUA	355,74
8	CORREOS. POSTA KUOTAK APIRILA	12,13
9	G.U.K: UR ORNIDURA	89,71
10	SEGURAKO UDALA: ESKOLAKO GASTUAK	8531,75
11	BIOK S.L.: KARCHER ETA MATERIALAREN EROSKETA	1716,48
12	ONDARTEZ: JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO PANELAK	6050
13	J.E. ROJO: EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZA	352
14	M.P. GABIRONDO: EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZA	352
15	NAFARROA OINEZ: DIRULAGUNTZA	60
16	HERRI URRATS: DIRULAGUNTZA	60
17	ARABA EUSKARAZ: DIRULAGUNTZA	60
18	KONTSEILUA: DIRULAGUNTZA	60
19	IBILALDIA: DIRULAGUNTZA	60

3.- Dirulaguntzak.

Alkateak hitza hartzen du Eusko Jaurlaritzako Leader programako dirulaguntzetan hiru proiektu aurkeztuko direla adierazteko: Azpiegituretako atalean meategietan hesiak jarri, Plazan bukatu gabe dagoen eraikuntzan etxebizitzak bukatzeko eta eskola zaharretan beheko lokala egokitzeko. Beste aldetik Foru Aldundiko oinezko bideak egiteko eta bide berdean izandako luizia konpontzeko. Proposamen honekin zinegotzi guztiak adostasuna adierazten da.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko ordubiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.